

**Gasteizen, 2025eko maiatzaren 6an**

### Ikastolakide agurgarria

Gerturatzen ari zaigu Araba Euskaraz eguna. Ekainaren 15ean berriro elkartuko gara milaka ikastolazale eta euskaltzale Olarizun, Gasteizen, Arabako ikastolen jai handia ospatzera. Eta milaka horien artean zeu, zeure familia eta lagunak ere nahi zaituztegu. Horixe da, hain zuzen ere, gutun honen xedea, Araba Euskaraz gurekin ospatzera gonbidatu nahi zaitugu lerro hauen bitartez.

Lanean ari gara Arabako ikastolen jaia prestatzeko. Auzolanean ari gara, Arabako zortzi ikastolak elkarrekin, duela lau urte abiatutako ereduari jarraiki. Aurtengo ekitaldian Bastida ikastola lagunduko dugu guztion lanarekin. Urte osoan aritu gara Arabar Errioxako ikastola honen hezkuntza proiektua bultzatzen, eta hura finantzatzeko dirua lortu nahi dugu jaiarekin. Baino Araba Euskaraz ez da soilik ikastola baten finantzazioa lortzeko helburuarekin egiten. Aitzitik, ikastola mugimenduaren indar erakustaldia ere bada, gure komunitatea sendotzen laguntzen duen egun bat ere bada, gure hezkuntza eredua aldarrizko eguna. Euskarari eta euskal kulturari plaza eta bozgorailu handiak ere eskaintzen dizkiegu Araba Euskarazen bitartez, euskaraz bizi nahi duten herriaren eta herritarren bilgune handi bat da.

Egunari begira jarriak gara dagoeneko, eta aurreko urteotan bezala, bereziki haurrei eta familiei bideratutako jai eguna ari gara prestatzen. Halere, adin guztiarako askotariko kultur ekimenak eskainiko ditugu ekainaren 15eko Araba Euskaraz egunean. Jai parte-hartzalea izatea nahi dugu, eta euskararen erabilpena bultzatuko duena. Jai parte-hartzalea bai. Horretarako ditugu bestek beste, gazte eta gaztetxoentzako Erronka, txikienetzako Haurren Basoa eta Argitxoren txokoa, eta adin guztiarrek Dantza Plazan. Musika, dantza eta antzerkia ere ez dira falta izango, eta nahi beste jateko eta edateko ere prestatuko dugu.

Beharbada, urte osoan zehar Araba Euskarazek antolatu dituen ekitaldietan parte hartu duzu, edota ekainaren 15eko jaiaren antolaketan auzolanean ari zara dagoeneko. Hala bada, mila esker mila! Akaso, egunean bertan lanean arituko zara, horrelako jai batek eskatzen duen boluntario multzo handiaren parte izango zara. Hala bada, eskerrik asko, aldez aurretik. Auzolanerako aukerarik ez, baina eguna familiarekin Olarizun igarotzera etorriko zaren horietako bat izango zara, apika; besoak zabal zabalik hartuko zaitugu! Agian, oraindik ez duzu erabaki Araba Euskaraz jaira etorriko zaren; zatoz, ez zaizu damutuko!

Araba Euskaraz Kultur Elkartearen izenean, jai hau aurrera ateratzen ari den lan talde handi eta zabalaren izenean, Arabako ikastolen izenean, mila esker.

Adeitasunez

***Unai Mendizabal***

Arabako Ikastolen lehendakaria

**Gasteizen, 2025eko maiatzaren 6an**

Estimad@ compañer@ de ikastola

Se acerca el día del Araba Euskaraz. El 15 de junio nos reuniremos miles de ikastolazales y euskaltzales en Olarizu, Gasteiz, para celebrar la gran fiesta de las ikastolas de Araba. Y entre esas miles de personas también os queremos a ti, a tu familia y a tus amigos y amigas. Precisamente este es el objeto de esta carta; a través de estas líneas queremos invitarte a celebrar el Araba Euskaraz con nosotros y nosotras.

Llevamos semanas trabajando para preparar la fiesta de las ikastolas de Araba. Trabajamos en auzolan, las ocho ikastolas alavesas juntas, siguiendo el modelo iniciado hace cuatro años. Mediante el trabajo de esta edición apoyaremos a la Ikastola Bastida. Durante todo el año hemos estado impulsando el proyecto educativo de esta ikastola de Rioja Alavesa y ahora queremos conseguir dinero para financiarla con la fiesta. Pero el Araba Euskaraz no se celebra sólo con el objetivo de conseguir la financiación de una ikastola. Por el contrario, es también una demostración de fuerza del movimiento de las ikastolas, es también un día que contribuye a consolidar nuestra comunidad, un día para reivindicar nuestro modelo educativo. También ofrecemos grandes plazas y altavoces al euskera y a la cultura vasca a través del Araba Euskaraz; y es, también, un gran punto de encuentro del pueblo y de la ciudadanía que quiere vivir en euskera.

Ya estamos mirando al día y, como en años anteriores, estamos preparando una jornada festiva especialmente orientada a las niñas, niños y a las familias. Sin embargo, en el Araba Euskaraz del 15 de junio ofreceremos diferentes iniciativas culturales para todas las edades. Queremos que sea una fiesta participativa y que impulse el uso del euskera. Fiesta participativa sí. Para ello contamos, entre otros, con las pruebas de Erronka para jóvenes, el Txoko de Argitxo y Haurren Basoa para las y los más pequeños, y la Dantza Plazan para todas las edades. Tampoco faltarán la música, la danza y el teatro, ni la comida ni la bebida.

Puede que durante todo el año hayas participado en los actos que ha organizado el Araba Euskaraz, o que ya estés trabajando en la organización de la fiesta del 15 de junio. Si es así, ¡gracias! Quizás estés trabajando el mismo día de la fiesta, y formes parte del gran número de personas voluntarias que requiere una fiesta así. Si es así, gracias de antemano. Pero quizás seas una de las personas que vendrá con su familia a pasar el día en Olarizu, ¡te recibiremos con los brazos abiertos! A lo mejor todavía no has decidido si vendrás a la fiesta del Araba Euskaraz; ven, ¡no te arrepentirás!

En nombre del Araba Euskaraz Kultur Elkarte, en nombre del gran y amplio grupo de

trabajo que está organizando esta fiesta, en nombre de las ikastolas de Araba, gracias.

Atentamente

***Unai Mendizabal***

Presidente de las Ikastolas de Araba